

# Hezkuntza borrokan!

Lan baldintzak hobetuz, hezkuntzak irabazten du

## Ezinezko omen zena... borrokaren bidez lortu dugu!

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan gehiengoa duen ELA sindikatuak, Steilas eta CCOO sindikatuekin batera, sinatu berri duen akordioa bikaina da, besteak beste, esparru prekarizatu eta feminizatuetan eragin positibo nabaria izango duten lanaldi murrizketa garrantzitsuak eta koordinaziorako orduen aitortza azpimarragarriak lortu ditugulako.

Horrela, Hezkuntza laguntzako espezialisten jardunaldia urtean 97 ordu murriztuko da (1.390etik 1.293 orduko jardunaldira) eta astean ordu eta erdi izango dute koordinazio lanetarako (ordu bat lanaldi osoa baino lanaldi txikiagoa dutenentzat); HHko lehen zikloko langileei dagokienez, urteko lanaldian 45 orduko murrizketa izango dute (1.620tik 1.575 orduko jardunaldira), eta koordinaziorako urtean 125 ordu izango dituzte. Administrazio eta

zerbitzuetako langileek ere urteko lanaldi murrizketa sendoa izango dute 30 ordukoa (1585etik 1555 orduko jardunaldira), ordaindutako 2 baimen egun hartzeko aukerarekin batera.

Baina baita, 2 eta 3. orrialdeetako taulan jaso nahi izan dugun bezalaxe, gainerako hainbat esparru eta sektoretan lortu ezinezkotzat jo izan diren hainbat edukitan aurrerapauso eta lorpen nabariak barneratzen dituelako ere.

Akordio honek argi erakusten du, langileak antolatuz zein mobilizazio eta greba dinamika indartsu bat landuz eta bultzatuz lortu ezinezko edukirik ez dagoela. Horregatik, ELAk langile guztiak animatu nahi ditu antolatzen eta mobilizatzen, hau baita gure lan eta bizi baldintzak, zein gure hezkuntza hobetzeko bermerik onena.



# Zenbat eta gehiago mobilizatu, orduan eta baldintza hobek

Gaia	Gizarte Ekimena: ELA:%56, Steilas %18, CCOO %15, LAB %8, UGT %3
<p><b>Soldata igoerak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritzak finantziatuko duenari lotu gabe, KPI+4 puntuko igoera 2017-2020.</li> <li>2009tik galdutako erosi-ahalmena %50 berrreskuratuta.</li> </ul>
<p><b>Jubilazio partzial aurreratua (errelebo kontratua)</b></p> <p style="text-align: center;">+</p> <p><b>kalitatezko lanpostu sorrera</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Langile guztiek jubilazio partzial aurreratua hartzeko eskubidea dute lanaldia %75ean murriztuz (jubilazio partziala hartzen duen langileak %25eko lanaldia bete beharko du.</li> <li>Errelebista bezala kontratatuko den pertsona 100%eko lanaldiarekin eta behin betiko kontratuarekin kontratatuko da.</li> </ul>
<p><b>Lanpostu galera ekiditeko neurriak (matrikulazio jeitsiera aurreikusten da datozen urteetarako ikastetxe guztietan)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Birkokapen prozedura sektoreko ikastetxe guztiei aplikagarri, patronal guztietakoei.</li> <li>Lanpostua galdu dezaketen langile guztiak birkokatu ahal izateko kalitatezko lanpostu hutsen sorrera bermatua (errelebista moduan 100%eko lanaldian eta kontratu mugagabearekin).</li> <li>Kaleratzeko eta kontratatzeko irizpide objetiboak araututa eta jasota.</li> <li>Birkokapen prozedura zehaztuta.</li> </ul>
<p><b>Lan kargak arintzeko neurri eraginkorrak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleek asteen lan pertsonalerako (ikasleen jarraipena egiteko, klaseak prestatzeko, azterketak eta lanak prestatu eta zuzentzeko...) 3 ordu osagarri bermatuta izango dituzte.</li> </ul>
<p><b>Lanbide Heziketa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Asteen 6 ordu lektibo lan zentruetako formaziora bideratu behar direla aitortzen da eta tutore eta koordinatzaileen artean nola banatu negoziatzeko epea ezarri</li> <li>Gela edo tailerreko praktikaldietan 20 ikasle baino gutxiagoko geletan bi irakasleren presentzia bermatu beharra aitortzen da eta adosteko epea ezarri.</li> </ul>

**Lan baldintzen hobekuntza mobilizazioaren tamainakoa da. Ezinezkoa omen zena lortu dugu, grebaren bidez: negoziazioari aurretik inposaturiko mugak hautsi ditugu, hemen adibidea:**

<b>Ikastolak : LAB %70, ELA %30</b>	<b>Hezkuntza Publikoa: ELA %26, LAB %28, Steilas %27. CCOO %10. UGT %6,5</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritzak ezarritako finantziaketari lotuta praktikan, KPI+0,4ko igoera 2018-2019</li> <li>2009tik galdutako erosi-ahalmena apenas %5 berreskuratuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2010eko %5eko soldata murrizketa berreskuratuta gabe eta KPI+2,1eko igoerak 2016-2019.</li> <li>2009tik galdutako erosi-ahalmena soilik %15 berreskuratuta.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Langileek jubilazio partzial aurreratua hartzeko eskubidea dute baina lanaldia %50ean murriztuz (jubilazio partziala hartzen duen langileak %50eko lanaldia bete beharko du, hau da, bikoitza lan egin beharko du); ordainketa eskuordetuan dauden langileen kasuan Eusko Jaurlaritzaren finantziaketa/ esku hartzea baldin badago soilik.</li> <li>Errelebista bezala kontratatuko den pertsona lanaldi erdian eta behin behineko lan kontratuarekin kontratatzeko aukera (100%eko lanaldian eta kontratu mugagabearekin izateko obligaziorik ez).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jubilazio partzial aurreratua laboralak diren langileek bakarrik hartu ahalko dute (funtzionarioek ez); eta %50ean murriztuz lanaldia (jubilazio partziala hartzen duen langileak %50eko lanaldia bete beharko du, hau da, bikoitza lan egin beharko du).</li> <li>Errelebista bezala kontratatuko den pertsona lanaldi erdian eta behin behineko lankontratuarekin kontratatuko da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Birkokapen prozedura patronal bateko ikastolei soilik aplikatzen zaie (partaideko ikastolei, EIBkoei ez)</li> <li>Lanpostua galdu dezaketen langileak birkokatu ahal izateko kalitatezko lanpostu hutsen sorrera bermatu gabe (patronalak aukera izango du errelebista %50 eko lanaldiarekin eta behin behineko kontratu bidez kontratatzeko).</li> <li>Kaleratzeko eta kontratatzeko irizpide objetiboak arautu eta jaso gabe.</li> <li>Birkokapen prozedura zehaztuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanpostu galera ekiditeko neurri eraginkorrik ez dago.</li> <li>Behin behinekotasuna %40 eta %70 bitartekoa da sektorearen arabera, eta maila hauek radikalki jaisteko kontsolidazio prozedurarik ez dago; (matrikulazioa jeisten bada behin behinekoak lanik gabe).</li> <li>Muturreko ratio politika aplikatzen da, 2009 urtean aplikatzen zen ratio irizpideetatik aldenduz (2009ko irizpideak aplikatuz gero %9 jaitsiko balira ratioak lanpostu gehiago beharko liriateke eta hezkuntza kalitate hobea litzateke).</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleen lan kargak arintzeko neurri eraginkorrik ez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleen lan kargak arintzeko neurri eraginkorrik ez.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ezer ez.</li> <li>Ezer ez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lehendik arautua dago.</li> </ul>

# URTARRILA U30 ENERO GREBA OROKORRA HUELGA GENERAL

## HAMAIKA ARRAZOI GREBARAKO!

Urtarrilaren 30ean Greba Orokorra izango dugu, **Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak** deitua. Euskal sindikatuok eta eragile sozial ugariak (pentsiodunak, feministak, ekologistak, gazte-mugimendua, bazterketa sozialaren aurkako plataformak, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sarea...) osatzen dugu Karta.

Pentsiodunen mugimenduren deia erantzunez antolatu dugu Greba Orokorra. Etengabe mobilizazio indartsuak egiten kalean bi urte eman eta gero, jauzi kualitatibo bat emateko beharra planteatu du mugimenduak, borroka justu horren alde beste kolektibo batzuk gehituz. Gaurko pentsiodunei eta etorkizunekoei, guztioi eragiten digun borroka da **pentsio sistema publikoa defendatzea**, lan harremanetarako eta babes sozialerako sistema propioa lortzea, 1.080 euroko gutxieneko soldata aldarrikatzea edota eros-ahalmena legez bermatzea.

Gainera, Greba Orokorrarekin, eta aurretik lantzen ari garen dinamikarekin, **prekarietatearekin amaitu** eta lan baldintzak duintzeko neurriak hartzeko beharra jarri dugu mahai gainean. Neurri horien artean daude: lanaldia 35 ordura jaitea, 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea, soldata-arrakala amaitzea nahiz azpikontratazioetan enplegua eta lan-baldintzak bermatzea.

Era berean, egun ukatuak diren **eskubide sozialak** aitortzea erreklamatzeko, besteak beste, alokairu sozialeko etxebizitzak eskuragai izatea edota menpekotasun egoera guztiei erantzun egokia ematea, zerbitzu - sozialeko sistema publiko, unibertsal eta doakoaren bidez. Bizitza erdigunean jarriko badugu, ezinbestekoa da zaintza lanak ikusarazi, duindu eta bermatzea.

Garaia da azken urteetan murrizketekin kendu diguten guztia berreskuratzeko, eta adostu dugun Aldarrikapen Taularen norabidean aurrera egiteko. Pentsio, lan-baldintza eta bizitza duinak nahi ditugu. Eskubidea dugu eta lortu arte borrokan jarraituko dugu, planeta suntsitzen ari den sistema ekonomiko eta sozial kapitalista, neoliberal, patriarkal honek ezartzen duen logikaren aurka.

**Mobiliza gaituzen**, beharrezkoa da, nahi dugun aldaketa denon artean bideratzeko; badakigu presioa egitea beharrezkoa dela patronalak eta instituzioek (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, espainiar Gobernua) gure eskakizunen aurrean amore eman dezaten.

Beraz, Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan greba bitartez hainbat eskubide irabazi ditugun bezala, urtarrilaren 30ean Greba Orokorra dugu. Pentsionista, mugimendu feminista eta bestelako mugimendu sozialekin batera lapurtu dizkiguten lan eskubide eta eskubide sozialak berreskuratzera goaz! **Urtarrilak 30ean denok greba orokorrera!**

